

# LEONHARD EULER

Iñaki Azkune Mendia\*

**M**atematikari suitzar hau, Basilea-n jaio zen 1707. urteko apirilaren 15ean. Bere aitarengandik ikasi zuen matematika. Basileara bidali zuten teologiako ikasketak egitera. Bertan, Jacques I Bernouilli, suitzar jakintsua, izan zuen irakasle (bere aitak izan zuen irakasle bera), honen semeen lagun handi egin zelarik. Hauek San Petersburg-era (Errusiara) joan ziren 1732an, Katalina I.a Errusiako enperatrizak eskaturik, eta Euler beraiekin eraman zuten. Han matematikako katedran hasi zen lanean. 1735. urtean, garuneko kongestio baten erruz, begi bateko ikusmena galdu zuen. Hurrengo urtean *Mekanikako Itun Osoa* idatzi zuen. Bertan analisi matematikoa higiduraren zientziari aplikatzen zion. 1741. urtean Berlinera joan zen Federiko II.a Danimarka eta Norvegiako erregeak gonbidaturik, Zientzi Akademiari indar-pixka bat eman ziezaion. Garai hartan, *Isoperimetroen Teoria* idatzi zuen. Teoria horren bidez,

kurbak determina zitezkeen. Liburu harekin batera, *Kometen eta Planeten Higiduraren Teoria* eta *Imantazioaren Teoria* idatzi zituen, Prusiako erregeari balistikako arazoak konpondu zizkielarik. Urte batzuk geroago, beste bi liburu idatzi zituen: *Kalkulu Infinitesimalerako Sarre-ra* (1748) eta *Kalkulu Diferentzialaren Instituzioak* (1755). 1766an San Petersburgera itzuli zen. Urte hartan bertan, gertzen zitzaion begi oneko ikusmena galdu zuen. Baina Eulerrek ez zion lan egiteari utzi. 1768 eta 1770. urte-bitartean, *Kalkulu Integralaren Instituzioak* liburua agertu zen. Bere matematika, astronomiari aplikatu zion, perturbazio batzuen izaera ondorioztatu zuelarik. Horregatik, Euler, Laplace eta Lagrange-ren teorien aitzindari izan zen. Ilargiari buruzko teoriak egin zuen lanik handiena, hau da, Ilargiaren higidura zehatzaren analisisiaz. Nahiz eta emaitzak zuzenak izan ez, ordurarte egindakoarekin konparatuz aurrerakuntza handia izan zen. Horrez gain, argia uhin-forma bat zela eta kolo-



Leonhard Euler matematikari suitzarra Basilea-n jaio zen 1707an.

rea uhin-luzeraren menpekoa zela adierazi zuen. Gizaldi bat geroago, adierazpen hauek baieztatu egin zituen Young zientzilari britainiarrak. Apopleji atake batez hil zen San Petersburgen 1783. urteko irailaren 18an.



\* ZETIAZ - Elhuyar